



irudia. SAURAREN OINORDEKOAK

Funtsezkoak dira bi egileak literaturaren historian, eta haien lan bat baino gehiago irakur daiteke horregatik euskaraz ere. Hor daude, esaterako, Juan Garziak Shakespeareri euskaratutako sonetoak eta *Hamlet* antzezlanak, eta hor dago Pedro Mari Berrondok itzultitako *Don Kijote* *Manixako* ere (Erein). Garai berekoak sortzaile biak, eta baita izen handikoak ere, baina ospakizunei dagokienez bistakoa da aldeak. Anjel Lertxundi idazleak deskribatu zuen egoera BERRIARAKO idaztitako zutabeak. «Britainia Handia arrandi betean ari da Shakespeareren omenetan. Espainia txepel, gogorik gabe, kontrakarrean dago hasi ez hasi Cervantesen omenez».

Apirilaren 23koa izango da data borobila, eta hor egingo dira bai idazle baten eta bai beste idazlearen inguruko ekitaldi nagusiak, eta gero ere hilabeteak izango dira laugarren mendeurren amaitu arte. Urteak aurrera egin ahala eta prestatutako ekitaldiak antolatuta ahala ikusiko da, beraz, azkenean Cervantesen urteurrena urte cervantestarra edo urte XIXotetarra izan den. Abenduaren ebartziko da, beraz, urteurrena kultur ordezkariak adierazi bezain erraldi ote zen, edo ahots kritikoei kritikatu bezain errota.

Benjamin, orain–hemen

Alex Gurrutxaga

Walter Benjamin XX. mendeko pentsalari ezinbestekoa da: inportantea ezkerreko marxismoan, eta ildo horretako arte kritikan, berriz, XX. mendeko izen interesgarrienetakoa G. Lukacs-ekin batera.. Zerbait pentsarazi behar liguke euskarazko itzulpena sistemaren bazterretik iritsi behar izanak. Benjaminen obrak dimentsio handia dauka, hala tamainaz nola jorratutako gaiet dagokionez, eta Sans Soleil argitaletxeak bi liburuki argitaratu ditu: literaturari buruzko testuak batean, bestean historiari, arteari eta abarri buruzkoak. Bederatzi saiakera guztira eta, topikoa bada ere, egon zitezkeen beste batzuk –*Narratzailea* edo *Egilea produktore gisa*, adibidez–, baina daudenek ongi justifikatu daude kate presentzia. Antologia koherente eta adierazgarria da. Gaine-

ra, liburu bakoitzak dauka hitzaurre mardul bana –Bernat Pardo eta Jose Luis Delgadorenak–. Esku askotara itzultitako lana da –G. Arrula, M. Babiano, G. Urturi, eta abar–, eta testuen zuzentze lanak ere (G. Ugalde) badauka meriturik. Alemanik ez dakien irakurle hau ez da itzulpenaren egokitasunaz deus esateko gai, baina bai beste bi ohar. Batetik, itzulpenaren emaitza oso egokia



'Literatura oharrak' eta 'Denbora, historia eta artearen inguruko testuak'
Idazlea: Walter Benjamin. Itzultzaileak: Askoren artean

da, eta testuek orokorrean oso ongi egiten dute aurrera. Beste-tik, ematen du adituren baten errebisio teknikoak falta dela. Adibide bat: I. Seguiolak *Reproduzierbarkeit* terminoa *errepikagarritasuna* itzultzen du, onartezina den konnotazio galera eraginez; aldiz, D. Sarriugartek *erproduzigarritasuna* erabiltzen du, nire ustez oso egokia dena –nahiz eta *wiederholbarkeit* terminoarentzat ere erabiltzen duen–. Kontua da ez luketela bi aukerek agertu behar, liburu berean, kontzeptu bakarraren-tzat. Irudipena daukat berrikuspen tekniko batek halako gauzatoxak fin–fin lotuko lituzkeela.

Benjamin dagokionez, artearen dimentsio sozialaren analisisian hartzen du indar guztia haren teorizazioak: azterketa estetikoa eta masa–mugimendua, historia eta kultur produktzioa, marxismoa eta literatura... erlazionatzen ditu modu emankorrean. Egile fragmentarioa zen Benjamin, baina, pieza guztiekin, gizararen baitako erlazio askotarikoak ikusarazten dizkiugu. Horren adibide da zeharka aipatu dugun *Artelana errepikagarritasun teknikoaren garaiak*: saiakera agortezina, kritika estetiko garaiakidazteentzat testu fun-

tsezkoa. Benjaminek «auraren» galera postulatu du: aro garaiakidazteentzat ere, erreproduzigarritasun teknikoak artelana milaka aldiz erreproduzitzeko aukera ematen du –argazkiak, zinema– eta, horrela, honek bere orain–hemengo izatea eta benetakotasuna galtzen ditu. Baina galerak badauka ifrentzia ere, erreproduzigarritasunak masa–gizarera inoiz ez bezala iristeko aukera baitakar: Benjaminen ustez, eskuinak politika estetizatzen duen bitartean, marxismoak artea politizatuz erantzuten du.

Literaturari heltzen dionean ere, ertz asko ukitzen ditu Benjaminek. *Baudelaireren gai bartzuen inguruan* saiakeran, adibidez, poeta frantsesak egindako XIX. mendeko «mila gizaki nahasiren» hiriarren iruditik abiatzen da mundu modernoaren azterketan sakontzeko, besteak beste marxismoa (Engels), psikologia (Freud) eta literatura (Poe) jositik modu paregabeak.

Benjamin ezinbesteko egilea da, bai, eta bere modernotasunari esker, oraindik ere oso garaikide sentitzen dugu; B. Padrok hitzaurrean idatzi bezala, «bere orrialdeen aurrean paratzen denaren irudimen kritikoa piztea lortzen du».

Zabar

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Tximinoaren eta marrazkoaren ipuin hau oso zabalduta dago, eta erraz aurkitzen da sarean. Afrika mendebaldeko ipuin tradizionala omen da, *Tximinoaren bihotza* izenarekin, eta jatorriz Indiako fabula bilduma zahar bat (Panchatantra) omen du sorburu. Liburu honetan aurkezten zaigun ipuina hitzez hitz topatu dut, gaztelaniaz zein ingelesez, bilaketa egin dudana hizkuntzetan.

Bestalde, ipuina kokatzen ere ez zait iruditzen asmatu denik, kostalderik gabeko eskualde bat ez delako proposena marrazko protagonista duen ipuin batek. Ezin al zen aukeratu Txinako kostaldearen 14.500 kilometroetan dauden herrixketako bat?

Zergatik hain justu Heilongjiang, kostalderik ez badu? Zergatik Amur ibaiak, Errusiako ipar–ekialdeko ur hotzetan isurtzen bada, ipuinak irudikatzen dituen para-jeetatik oso bestelako giroetan? Idazleak lizentzia du errealitatea nahierara bihurtzeko, baina errenta ateratzen ez bazaio, zertarako egin? Zertarako nahastu irakurleak datu okerrekin?



'Sendagaia'
Idazlea: J.M. Olaizola, *Txiliku*.
Ilustratzailea: Bruno Hidalgo.
Argitaletxea: Elkar.

Barrez lehertu

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Eskatologia baliabide merkea izan ohi da haurren irria bilatzen dugunean, baina halakoei mamia ateratzen abildaderik baduela erakusten digu Blakek.

Gidoiak simplea dirudi, «kaka putza» artean abiatzen gara orri bat bai eta hurrengo ere bai, baina akordatzerako espero ez dugun bidetik garamatza, barre algarara artean.

Testua hasiera batean dirudien baino konplexuagoa da, eta kontuz ibili behar da irakurle hasiberriak kateatu ez daitezten. Hobe da geure esku hartzea irakurraldia, guztion gozamina ziurtatzeko.

Ilustrazioari begira, neke handirik gabe etortzen zaigu burura

Tomi Ugerer sonatuaren *Hiru bidelapurra*, edo Gregoire Solotareff ez hain ospetsuaren *Osoño* albumetan erakusten den estetika: irudi handiak, marra beltz lodiz inguratuta, atzealde kolorebarkar batik bat gorri, hori edota urdinarekin.

Marrazketa erraza darabil, inozoa edota «arterik gabea», baina benetan eraginkorra suertatzen da, haurren antzera marrazte hori, ezen haurrengana are gehiago hurbiltzen baita.



'Kaka putza'
Idazlea: Stephanie Blake. Ilustratzailea: Stephanie Blake. Itzultzailea: Inma Errea. Argitaletxea: Denonartean.